

TXOSTENA

hegoa

eman la zabil zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



hegoa

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTKO LANIKIDETZA ETA GARAIPENARI BURUZKO JASKETA INSTITUTUA




www.hegoa.ehu.eus
hegoa@ehu.eus

EHU/UPV
Zubiria Etxea eraikina
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91

EHU/UPV
Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64

EHU/UPV
Campuseko Liburutegia
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 42 87

 @Instituto_Hegoa

 instituto-hegoa

 @HegoaInstitutua

Aurkibidea

1. Aurkezpena	4
2. Prestakuntza-jarduerak	6
2.1. Hegoa Institutuak eskaintzen dituen graduondoko ikasketak	6
2.2. Hegoak ematen dituen ikastaroak eta prestakuntzako eta irakaskuntzako beste jarduera batzuk	9
2.3. Hegoak antolatutako biltzarrak , jardunaldiak eta mintegiak	10
2.4. Hegoa Institutuko irakasleek graduondoko beste prestakuntza batzuetan izandako parte-hartzea	14
2.5. Hegoako irakasleek egindako hitzaldiak eta tailerrak	16
2.6. Hegoako taldeak eta irakasle eta ikertzaileek beste ekitaldi batzuetan izandako parte-hartzea	19
3. Ikerketa-jarduerak	20
3.1. Ikerketa-taldeak	20
3.2. Beste ikerketa jarduera batzuk	37
3.3. Garapenari buruzko Ikasketen arloko doktorego tesiak	37
3.4. Nazioarteko batzorde eta ordezkariatzatan parte hartzea	38
3.5. Txostenak eta komunikazioak	39
4. Argitalpenak	43
4.1. Liburuak	43
4.2. Hegoaren Lan Koadernoak	45
4.3. Hegoak Zabalduz	45
4.4. Hariak. Recreando la educación emancipadora	45
4.5. Artikuluak, ikerketak eta liburuko kapituluak	46
5. Irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideak	51
5.1. Dokumentazio zentroaren zerbitzu digitalen 2022ko datuak	51
5.2. Dokumentazio Zentroaren multimedia-berrikuntzak	53
6. Aholkularitza-zerbitzuak	55
6.1. Erakundeei, aldundiei eta udalei emandako aholkularitza	55
7. Erakundearen organigrama	57
8. Txosten ekonomikoa	59



1. Aurkezpena

Memoria honetan, Hegoak 2022. urtean zehar egindako jarduera nagusiak laburbiltzen dira. Urte horretan, presentzialtasun osoa berreskuratu ahal izan dugu barne landinamiketean eta jarduera publikoetan. Azken horietan, zorionez, parte-hartzea handitu egin da eta ideiak eta esperientziak modu zuzen eta hurbilan partekatzeko aukera izan dugu. Irismen, ikusgarritasun eta eragin handiena izan duten jardueren artean, honako hauek ditugu: Kolonbiako Egiaren Batzordearen Amaierako Txostenaren aurkezpena Europan, *Gizarte-konpromisoa ikerlan akademikoetan mintegiak*, *Giza eskubideen Defendatzaileentzako Prestakuntza Espezializatuko ikastaroaren* lehen edizioa, UPV/EHUren *El derecho a la verdad como herramienta para la construcción de paz* Udako Ikastaroa, eta Ikerketa Metodologia Feministari buruzko VI. Jardunaldiak: *Migrazioak, giza eskubideak eta interseksionalitatea*.

Hegoaren prestakuntza-jardueren artean, unibertsitateko irakaskuntzak toki nagusia du. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak Masterraren eta Globalizazioa eta Garapena Masterraren edizio berriak egin dira. Horiek eskaera handiko titulu ofizialak dira. Halaber, Nazioarteko Lankidetzak eta Hezkuntza Askatzailea Masterra dugu, online ematen dena eta lankidetzaren sektoreko profesionalen prestakuntza eta eguneratzea errazten duena. Eskaintza zabala eta iraunkorra da eta egoera ekonomiko, sozial eta politikoari buruzko hausnarketa kritikoko eremuak sustatzen ditu goi-mailako hezkuntzan, lehiakortasun eta merkantilizazio gero eta handiagoko hezkuntza-sisteman batean. Gainera, Garapenari buruzko Ikasketen arloko Doktoretza programa eskaintzen da, Hegoak koordinatuta. Programak Bikaintasunerako Aipamena du eta 82 tesi ditu 2022-2023 ikasterterako matrikulatuta. Horrez guztiaz gain, hainbat eskola eta mintegi ematen ditugu beste unibertsitate-master eta ikastarotan eta prestakuntza jarduera asko egiten ditugu unibertsitateaz kanpoko eremu asoziatiboetan.

Hegoako kideek, bai lantaldeetakoek eta bai UPV/EHUko adskribatutako irakasle eta ikertzaileek, proiektuetan parte-hartu dute. Horiek, ikerketa arloaz gain, prestakuntza-jarduerak eta aholkularitza teknikoa landu dituzte, beste herrialde batzuetako unibertsitate eta gizarte erakundeekin elkarlanean. Esparru horretan, 2022an honako diplomatua hau garatu dugu Cauca Iparraldean (Kolonbia): Proiektu ekonomiko eta produktiboen formulazioa eta gestioa ekonomia sozial eta solidarioaren eta *ekonomia feministaren* ikuspegitik. Diplomatua Universidad Javeriana eta Universidad del Cauca unibertsitateekin eta Corporación Ensayos erakundearekin batera egin dugu.

Emaitzei dagokienez, aurreko guztiak, besteak beste, lan akademiko eta zabalkundeko argitalpen ugari sustatzen lagun du. Halaber, argitaratzen ditugun hiru aldizkari hauen hainbat ale argitaratu dira aurrean: Hegoaren Lan Koadernoak, *Hariak*, *Recreando la educación emancipadora* eta *Hegoak Zabalduz* (azken hau euskaraz bakarrik).

Gainera, Hegoak hainbat erakunderi aholkularitza zerbitzuak ematen jarraitu du nazioarteko lankidetzaren arloan, hala nola Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiei eta zenbait udalei. Ildo beretik, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria kudeatzen dugu. Harmonizazio eta gardentasun tresna horretan zortzi euskal erakunde publikok parte hartzen dute.

Egindako lan guztia Hegoaren funtsezko beste zutabe batean oinarritzen da, Dokumentazio Zentroan, alegia. Hala, haren Biblioteka Digitalaren nazioarteko proiektzioa nabarmendu nahi dugu. Izan ere, hura Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko ikasketen arloko datu-base espezializatu nagusietako bat da, eta, urte amaieran, 21.585 erregistro zituen. Bertan, gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko materialak daude akademiaren, GGKEen, gizarte mugimenduen, erakundeen eta interesa duen edozeinen eskura.

Hegoako kideek, gainera, beste jarduera akademiko eta sozial asko egiten ditugu. Horiek biltzea ezinezkoa bada ere, memoria hau 2022an zehar egindako guztiaren erakusgai ona da. Zuen interesekoa izatea espero dugu.

Irantzu Mendia Azkue
Hegoako zuzendaria



2. Prestakuntza-jarduerak

Hegoan, zenbait irakaskuntza motaren bitartez garatzen da prestakuntzako eta gizarte eraldaketarako hezkuntzako jarduera. Alde batetik, Doktorego Programaren bitartez, Goi mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren (GHEE) eta UPV/EHUren berezko tituluen formatura egokitzen dena. Beste alde batetik, Hegoa Institutuko kideek Espainiako, Europako eta Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan ematen diren graduondoko ikasketetan (doktoregoak, masterrak, espezializazioa eta diplomatuak) parte hartzen dute. Azkenik, jarduera hori osatzeko, ikastaroak, biltzarrak, tailerrak eta mintegiak ematen ditugu beste unibertsitate, GGKE eta erakunde batzuek eskatuta.

2.1. Hegoa Institutuak eskaintzen dituen graduondoko ikasketak

Doktorego programa

Garapenari buruzko Ikasketak doktorego programa UPV/EHUK Doktoreko Eskolaren (DOKe) bitartez eskaintzen duen doktoregoetako bat da. Hura Hegoa Institutuak koordinatzen du eta bertan Ekonomia Aplikatua, Soziologia eta Gizarte Langintza, eta Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila sailek eta Gezki Institutuak parte hartzen dute.

Garapenari buruzko Ikasketak doktorego programak honako ikerketa-ildo hauek hartzen ditu: Garapena, globalizazioa eta nazioarteko fluxu ekonomikoak; Nazioarteko erakunde ekonomikoak eta integrazio ekonomikoak; Garapenerako lankidetzeta eta ekintza humanitarioa; Ingurumena eta garapen iraunkorra; Generoa eta garapena; Garapenaren finantzaketa eta mikrokredituak; Tokiko garapena eta lurraldea; Migrazioak eta baterako garapena; Giza garapenerako eta iraunkortasunerako teknologia egokiak; Hezkuntza,

garapena eta giza gaitasunak; Gizarte-bazterketa pobrezia eta desberdintasuna; Gatazkak, segurtasuna eta garapena; Lan-harremanak, gizarte-eskubideak eta enpresa transnazionalak; Kultura, komunikazioa eta garapena; Ongizatearen eta garapenaren adierazleak; Parte-hartzea, demokrazia eta giza eskubideak; eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa.

Programak Hezkuntza Ministerioak emandako *Bikaintasunerako Aipamena* eskuratu zuen 2011an.

Graduondoko ikasketa ofizialak

Globalizazioa eta Garapena masterra eta Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak masterra UPV/EHUko Titulu Ofizialen eskaintzaren parte dira eta Hegoa Institutuak eta Ekonomia Aplikatuko Sailak koordinatzen ditu. Titulu bi horiek Garapenari buruzko Ikasketen Doktorego programarako sarbidea ematen dute.



Globalizazioa eta Garapena Masterra

Master hau espezializazio akademikora eta ikerketa-prestakuntzara bideratuta dago. Hala, globalizazioaren fenomenoaren eta garapen prozesuen arteko loturak ikertzen ditu. Diziplinariako irakaskuntza-proposamen bat da, Garapenari buruzko Ikasketen (Development Studies) tradizioan kokatzen dena.

Masterraren irakaskuntza funtsezko bi dimentsio hauen esparru teoriko-metodologikoetan oinarritzen da: globalizazioa, arlo ekonomikoko eta sozial, politiko eta kultureko harremanak eta prozesuak mundu-mailako bihurtzeko prozesu gisa ulertua; eta garapenari buruzko ikuspegi teoriko nagusiak, hura giza garapenaren eta iraunkortasunaren paradigmatik ulertuta eta nazioarteko lankidetzak elkarbitza baketsua eta garapena mundu mailan sustatzeko tresna gisa duen eginkizuna kontuan hartuta.

2022-2023 ikasturtean 68 eskaera jaso genituen. Horietatik, 16 ikasle berri matrikulatu ziren (zortzi emakume eta zortzi gizon) eta bigarren matrikulako beste zazpi ikasle ere. Ikasle berrien artean bederatzia Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) datoz, bat Espainiako Estatuko beste leku batetik, lau Latinoamerikatik, bat Asiatik eta bat Afrikatik.

Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Masterra


Master honek, batez ere, ikasleak garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan akademikoki eta profesionalki trebatzea du helburu. Haren oinarriak dira berdintasuna, pobrezia aurkako borroka, giza garapena eta jasangarritasuna. Kalitatezko eta diziplinarteko lanbide heziketa eskaintzen du, garapenerako lankidetzaren arloan pertsonalki eta laboralki sartzeko laguntzeko.

Horretarako, bada, esperientzia handia eta ikasiko diren gaietan ibilbide luzea duten irakasleak dituen masterrak, unibertsitatetik zein lankidetzaren arloko erakundeetatik datozenak. Ikasketen programa osatzeko, gainera, ikasleek praktikak egin behar dituzte hainbat herrialdetan egiten diren garapenerako lankidetzaren proiektuetan.

Aurreko urteetan bezalaxe, 2022-2023 ikasturtean, UPV/EHUa aurretiko izen-emate gehien izan zuten masterrak bat izan zen, 131 eskaera, hain zuzen ere. 25 ikasle berrietatik (hogei emakume eta bost gizon), hamabi EAETik datoz, beste hamar beste autonomia erkidego batzuetatik eta hiru Latinoamerikatik.

Berezko titulua

Nazioarteko Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Askatzailea *online* Masterra



Master hau Hegoa Institutuak koordinatzen du eta UPV/EHUren Berezko Tituluen eskaintzan sartzen da. Estatu mailan, Hezkuntzaren Askatzailearen kontzeptuak eta praktikak modu zabalean lantzen dituen master bakarra da. Graduondoko proposamen honek, bada, gaur egungo egoera kritikoki aztertuz –non hainbat krisi ematen diren globalizazio neoliberalaren baitan–, garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren kritiko eta askatzailea sustatzeko gai diren subjektuak trebatzea du helburu.

Haien jardura profesionala lankidetzaren, hezkuntzaren edo beste edozein lan-eremutan ematen delarik ere, ikasleak ideia eta praktika alternatiboen ezagueran trebatzea da helburua, gizarte bidezkoa eta ekitatiboa lortzeko ekintza kolektiboak gauzatzeko behar diren baliabide teorikoak, gaitasunak eta baliabideak eskura ditzaten. Erabat *online* egiten denez, munduko edozein lekutik egin daiteke eta zaintza lanekin, lan ordainidunarekin edo beste prestakuntza batekin bateragarri egin daiteke.

Masterraren VIII. edizioan, 2022-2023 ikasturtean, 18 pertsona matrikulatu ziren (hamabost emakume eta hiru gizon). Horietatik zortzi EAetik zetozen, bederatzi Estatuko beste leku batzuetatik eta bat Europar Batasuneko beste herrialde batetik.

2.2. Hegoak ematen dituen ikastaroak eta prestakuntzako eta irakaskuntzako beste jarduera batzuk

Diplomatua: Proiektu ekonomiko eta produktiboen formulazioa eta gestioa ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia feministaren ikuspegitik
(Caucan, Kolonbian, 2022ko apiriletik irailera)

Diplomatu hau Caliko Universidad Javierana unibertsitateko Kulturarteko Ikasketen Institutuarekin, Corporación Ensayos para la Promoción de la Cultura Política erakundearekin eta Cauca Unibertsitateko Cicaficultura zentroarekin batera egin zen, lelo honekin: *Emakumeok badakigu bizitza erdian jartzeko ekonomia eraldatu beharra dagoela.*



Parte-hartzaileak 22 erakundetako 35 emakume izan ziren; emakume indigenak, landatarrak, afrokolonbiarrak eta FARCEko borrokalari ohien kooperatibetako kideak, birgizarteratzeko prozesuan zeudenak. Cauca egin zen eta haren edukien artean honako hauek aurkitzen ditugu: garatuko beharreko ekoizpen-ekimenen diagnostikoa/azterketa, emakumeen ekonomiaren eta eskubide ekonomikoen testuinguruari buruzko ikerlana egitea –identifikatutako ekoizpen-proposamenez osatutako eranskinak izango dituen–, eta prestakuntza teknikoa ematea, ekonomikoki bideragarriak eta jasagarriak diren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) eta Ekonomia Feministaren (EF) printzipioetan oinarritzen diren negozio-planak formulatu ahal izateko.

Diplomatua *Cauca Iparraldeko emakumeen erakundeen ahalduentze ekonomikoa (PRO-2021K1/0006)* proiektuaren esparruan antolatu zen, Hegoaren eta Mondragon Unibertsitateko Lanki Institutuaren arteko partzuergo baten bitartez eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) finantzamenduarekin.

**Udako ikastaroa: Egia jakiteko eskubidea, bakea eraikitzeko tresna gisa.
Nazioarteko elkarrizketa, Kolonbiako esperientzian oinarrituta
(Donostiako Miramar Jauregian, irailaren 7an eta 8an)**

Kolonbiako Egiaren Batzordeari (EB) European emandako babesean inspiratuta, ikastaro honek hainbat eragile bildu zituen: tokiko eta nazioarteko hizlariak –Eduardo González Cueva, John Paul Lederach, Elizabeth Lira Kornfeld, Pablo de Greiff eta Jon-Mirena Landa—, EBaren hainbat ordezkari –Francisco De Roux, Marta Ruiz Naranjo, Alejandra Miller Restrepo, Carlos Martín Beristain eta Lucía González Duque—, giza eskubideen eta trantsizioko justiziaren arloko hainbat erakundeko ordezkariak –Monika Hernando Porres, Irantzu Mendia Azkue, María Oianguren Idígoras, Silvia Plana Subirana eta Liliana Zambrano Quintero— eta Euskal Herritik, Espainiako Estatutik eta Batzordeak erbesteari buruz egindako lana babestu duten Europako beste herrialde batzuetatik etorritako 90 bat lagun.



Edukiak bost panel hauen bitartez landu ziren: “Comisiones de la verdad: visión global”; “Comisión de la Verdad de Colombia: características y despliegue territorial”; “Comisión de la Verdad de Colombia: pluralismo, amplitud y lenguajes”; “El legado de la verdad para la construcción de paz. Diálogo entre experiencias”, eta “Caleidoscopio de futuro. Aportes de la Comisión de la Verdad de Colombia a la convivencia y la no repetición”.

2.3. Hegoak antolatutako biltzarrak , jardunaldiak eta mintegiak

Mintegiak: Compromiso social en los trabajos de investigación académicos

(Bilbon, martxoaren 4, 10, 17 eta 24an; Neivan, martxoaren 4, 18 eta 25ean eta ekainaren 17an; Popayánen, martxoaren 4, 10, 17 eta 24an)

Ekimen hau, Universidad Surcolombiana unibertsitatearekin eta Cauca Unibertsitatearekin batera garatu da eta subjektuak laguntzeko proposamen gisa sortu zen, ikasleen, irakasleen eta gizarte eragileen arteko elkarlanean eta elkarrizketa horizontalean oinarrituta. Unibertsitate bakoitzean lau prestakuntza saio egin ziren, eta, horietan, hezkuntza askatzailearen ikuspegia bermatzeko jarraibide pedagogiko eta metodologikoak sortu ziren kolektiboki (ikasleen gradu amaierako eta master amaierako lanetan oinarrituta).

Teknologia digitalek ematen dituzten aukerak baliatuz, hiru lurraldeetako hainbat lagun elkartu ahal izan ginen eta hausnartzeko eta lan egiteko zenbait saio egin genituen elkarrekin. Eraitza nagusien artean, eremu horietan sustatutako metodologia eta Kolonbiatik partekatutako esperientziek, ikuspegiak eta erreferente epistemologikoen piztutako interesa ditugu.



Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programaren mintegiak

(Online, martxoaren 29an, maiatzaren 25ean, ekainaren 22an, azaroaren 3an eta abenduaren 14an)

Ekimen hau Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programaren esparruan sortu zen, eta, horretan, irakasle eta ikertzaileez osatutako talde dinamizatzailea izan zen. Mintegiak, bada, doktorego-tesia egiten ari diren ikasleen arteko lotura sustatzeko helburua du, haien tesian egindako aurrerapenak aurkezteko eta eztabaidatzeko eremu bat eskainiz, baita ikerketa prozesuaren inguruan dituzten interesak eta ardurak ere. Mintegietan ikasleek, Doktorego Programako irakasleek eta Hegoako kideek parte hartzen dute.

2022. urtean, bost saio hauek egin ziren:

- Matxoaren 29an, Gezki Institutuak *GIZAEKOA - Revista Vasca de Economía Social* aldizkariaren aurkezpen bat antolatu zuen masterretako eta doktoregoko ikasleentzat.
- Maiatzaren 25ean, Fredy Castrillón Galeano doktoregaiak bere tesi honen aurrerapenak aurkeztu zituen: "Proyecto de movilidad urbana en Medellín. Transición y acciones basadas en la movilidad sostenible"
- Ekainaren 22an, Silvia González Fuenmayor doktoregaiak bere tesi honen aurrerapenak aurkeztu zituen: "Actitudes hacia la migración en América Latina".
- Azaroaren 3an, Iván Camilo Vargas Castro doktoregaiak bere tesi honen aurrerapenak aurkeztu zituen: "Fortalecimiento de la justicia rural en la implementación del Acuerdo de Paz en Colombia".
- Abenduaren 14an, Alexandra Vizcaíno doktoregaiak bere tesi honen aurrerapenak aurkeztu zituen: "Participación política y Desarrollo Humano de las mujeres en América Latina. Análisis comparativo de la participación política de las mujeres indígenas y afrodescendientes del Ecuador (2011-2021)".

Kolonbiako Egiaren Batzordearen Amaierako Txostenaren aurkezpena Europan

(Bilboko Bizkaia Aretoan, uztailaren 6an)

Uztailaren 6an, Bizkaia Aretoan, Kolonbiako Egia Argitzeko, Elkarbizitzarako eta Ez Errepikatzen Batzordearen *Hay futuro si hay verdad* Amaierako Txostena Europan aurkezteko ekitaldi ofiziala egin zen. Ekitaldian 300 bat lagunek hartu zuten parte, eta hura streaming bidez ere eman zen, ingelesez eta gaztelaniaz.

Irekiera instituzionala honako hauek egin zuten: Monika Hernando (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaria), Gorka Moreno (UPV/EHUren Bizkaiko Campuseko Errektoreordea) eta Irantzu Mendia (Hegoako zuzendaria).

Ondoren, Carlos Martín Beristain eta Alejandro Valencia ordezkariak Amaierako Txostenaren aurkikuntza nagusiak aurkeztu zituzten. Jarraian, Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari eman zioten txostena.

Sailburuaren eta Europako beste herrialde batzuetako enbaxada eta parlamentuetako zenbait kideren hitzen ostean, *La Colombia fuera de Colombia* kapituluaren aurkezpena egin zuten, erbestean dauden bigarren belaunaldiko biktima indigena, afrikar jatorriko eta LGBTIQ+ kolektibokoan parte hartzearekin. Ekitaldiari amaiera artistikoa eman zioten.



Amaierako Txostenaren aurkezpenaren aurretik, uztailaren 5ean, *Del otro lado. Diario de un secuestro* dokumentala aurkeztu zen Bilboko Golem Alhóndiga Auditorioan. Filmaren proiektzioa amaitutakoan, Carlos Martín Beristain ordezkariak filmaren protagonista hauen arteko solasaldia moderatu zuen: Iván Guarnizo (zuzendaria), Jairo Guarnizo eta Güérima (FARC-EPko borrokalari ohia, Bake Akordioaren sinatzailea).

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruzko V. Jardunaldiak. Hezkuntza eraldatzailearentz aurrera egiten: erakunde eta instituzio publikoen arteko aliantzak

(Donostian, irailaren 30ean eta urriaren 1ean)

Jardunaldi hauek Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Hegoak antolatu dituzte eta horietan (H)ABIAN 2030 gizarte eraldaketarako Hezkuntza Estrategian sakontzeko eztabaidarekin jarraitu dugu. Aurtengo edizioan gizarte eraldaketarako hezkuntza eremuko eragileen arteko ardurakidetzak, aliantzak eta elkarlana izan da gai nagusia.

Anahí Guelman Ledaren eta Suyapa Martínez Scotten hausnarketa eta esperientzia interesgarriak izan ditugu, baita honako beste hauenak ere: Lafede.cat; Bartzelonako Udaren Justizia Global eta Nazioarteko Lankidetzazuzendaritza; Flora Tristán Peruko Emakumearen Zentroa eta Unibertsitate Kritiko Sarea.



Ikerketa Metodologia Feministari buruzko VI. Jardunaldiak: Migrazioak, giza eskubideak eta interseksionalitatea (Bilbon, 2022ko urriaren 20 eta 21ean)

Hegoa Institutuak eta UPV/EHUko SIMReF-EH ikerketa metodologia feministaren diziplinarteko mintegiak antolatutako jardunaldiak dira. Seigarren edizio honetan migrazioen gaia landu genuen. Haren bitartez, ikerketa feministak egiteko behar ditugun ikuspegi epistemologiko eta metodologikoak pentsatu nahi genituen, horiek aukera emango baitigute migrazio prozesuek gaur egun aurkezten dituzten erronka erraldoiak proposamen kritiko eta eraldatzaileen bitartez ulertzeko. Migrazio prozesu horiek, bada, bazterkeria eta indarkeria maila handiak dituzten gizarte politika eta praktiken eraginpean daude.

Osoko saioak, mahai-inguruak eta sei tailer metodologiko-lau gaztelaniaz eta bi euskaraz-egin ziren eta honako esparru hauetatik etorritako 200 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte: unibertsitatea, emakumeen eta feministen mugimenduak, LGTBIQ+ kolektiboak, kolektibo antirrazistak, GGKEak, erakunde publikoak, eta abar. Tailerrak hauek izan ziren: *Ipuinen eta kontuen artean: feminismoen eta estatistiken arteko elkarrizketak* (hau gaztelaniaz eta euskaraz); *Midiendo el homonacionalismo desde reflexiones feministas, anti-/de-/post-coloniales e interseccionales en diálogo con metodologías cuantitativas*; *Explorando las interseccionalidades desde la Educación Popular Feminista*; *Ikerketa feministak sozializatzeko/itzultzeko metodologiak* eta *Investigación Acción Participativa como proceso y herramienta para el empoderamiento feminista*.

Jardunaldien amaierako saioan, zenbait partaidek tailerretan egindako ikaspen nagusiak azpimarratu zituzten.

Osoko saioetan eta tailerretan egindako aurkezpenen eduki osoa *Investigación feminista sobre migraciones. Aspectos epistemológicos y metodológicos* lanean argitaratu zen.



2.4. Hegoa Institutuko irakasleek graduondoko beste prestakuntza batzuetan izandako parte-hartzea

Escuela de Doctorado internacional (EDIUS). Universidade de Santiago de Compostela. Ikasgaiak: Sostenibildad, inbestigación y Cooperación Internacional. A propósito de la Agenda 2030.

Máster en Acción Internacional Humanitaria. Deustuko Unibertsitatea. Ikasgaiak: Introducción y Geopolítica.

Master of Business Administration. Universidad de Valladolid. Ikasgaiak: Empresa y Sociedad.

Máster en Desarrollo, Cooperación y Acción Comunitaria. Universitat Ramón Llull, Bartzelona. Ikasgaiak: Conflicto, paz, seguridad y derechos humanos; Acción Humanitaria.

Máster en Diplomacia y Organizaciones Internacionales. CEI, Universitat de Barcelona eta Universitat Autònoma de Barcelona.

Economía Circular: Aplicación a la Empresa. UPV/EHU. Ikasgaiak: Talleres Prácticos de Economía Circular.

Máster en Economía Social y Solidaria. GEZKI Institutua, UPV/EHU. Ikasgaiak: Economía Aplicada, Economía Social y Solidaria (ESS): teoría y desarrollos; Intervención Pública y ESS; La cooperación al desarrollo y la ESS; Organización y administración de las entidades de ESS (gestión financiera).

Master en Estudios Feministas y de Género. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, UPV/EHU. Ikasgaiak: Economía feminista; Género, instituciones y políticas, sesión: "Experiencias de participación del movimiento de mujeres en la lucha contra la impunidad"; Población y reproducción Social; Políticas sociales,

económicas e igualdad; Retos de la globalización.

Máster en Estudios Internacionales. UPV/EHU. Ikasgaiak: Conflictos, seguridad y desarrollo.

Máster en Finanzas y Dirección Financiera. UPV/EHU. Ikasgaiak: Finanzas corporativas; Microfinanzas.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. UPV/EHU. Ikasgaiak: Gizarte Zientzietarako Ekonomia eta Enpresa

Máster en Gestión de los Recursos Humanos y del Empleo. UPV/EHU. Ikasgaiak: Políticas activas de empleo; Análisis del funcionamiento de los mercados laborales.

Máster Oficial en Gobernanza y Estudios Políticos. UPV/EHU. Ikasgaiak: Evaluación de políticas ambientales; Una aproximación crítica a la democracia y a la gobernanza desde el enfoque de capacidades y el desarrollo humano; Procesos socio-políticos a nivel supra-estatal; Teoría política, poder e ideologías en el siglo XXI.

Máster en Igualdad de Mujeres y Hombres: Agentes de Igualdad. Zuzenbide Fakultatea, UPV/EHU. Ikasgaiak: Economía Feminista; Presupuestos con perspectiva de género.

Telekomunikazio Ingeniaritzako Masterra. UPV/EHU. Ikasgaiak: Komunikazioen Sistema Elektronikoak.

Master Propio en Liderazgo y gestión del cambio para la sostenibilidad. ALDATUZ Gizarte Balioa Sortzeko Laborategia, UPV/EHU. Ikasgaiak: Economic Thoughts; Paradigma ekosoziala eta Ekonomia Sozial eta Eraldatzaitetik komunitatean proiektuak txertatzen.

Máster Propio en Medio Ambiente, Sostenibilidad y ODS. Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra, UPV/EHU. Ikasgaiak: Conflictos ecosociales y derechos humanos; Movilidad sostenible; Tecnologías para el desarrollo humano y la sostenibilidad; Valoración económica de los servicios de los ecosistemas.

Máster en Modelos y Áreas de Investigación en Ciencias Sociales. Soziologia eta Gizarte Langintza saila, UPV/EHU. Ikasgaiak: Investigación social en diversidad, exclusión y cohesión social.

Máster en Participación y Desarrollo Comunitario. Feminismos y Participación blokeko saioa.

Máster en Relaciones Internacionales y Estudios Africanos. Departamento de Ciencias Políticas y Relaciones Internacionales de la Universidad Autónoma de Madrid. Ikasgaiak: Globalización, integración regional y cooperación al desarrollo en África.

Máster en Relaciones Internacionales, Máster en Seguridad Internacional eta Máster en Políticas Públicas. IBEI - Institut Barcelona d'Estudis Internacionals. Ikasgaiak: Gender, Security and Development.

Máster Universitario en Sociedad Democrática, Estado y Derecho. UPV/EHU, Universidad Autónoma de Santo Domingo unibertsitatean (Dominikar Errepublika). Ikasgaiak: Retos del Constitucionalismo en el Siglo XXI: Políticas migratorias de la Unión Europea.

Posgrado de Especialización Universitaria en Género, Masculinidades y Acción Social. Universidad Complutense de Madrid, UPV/EHU eta Fundación CEPAIM. Ikasgaiak: Diseño de planes, programas y proyectos de intervención social para la igualdad de género; Evaluación de planes, programas y proyectos de intervención social para la igualdad de género; Iniciación al Trabajo Fin de Especialista (orientación y asesoramiento metodológico).

Posgrado de Especialización Universitaria en Gestión e Innovación en Servicios Sociales. UPV/EHU. Ikasgaiak: Planificación estratégica en la gestión de los Servicios Sociales.

2.5. Hegoako irakasleek egindako hitzaldiak eta tailerrak

“Sociedad que sigue descartando”. *Pobreza y Exclusión* Jardunaldien irekiera-hitzaldia, Cáritas La Rioja. Logroño, urtarrilaren 17an.

“Entendiendo el sistema económico mundial y sus invisibilizaciones”. *Otra Economía Está en Marcha* ikastaroa, Mugarik Gabeko Ekonomialariak / Economistas sin Fronteras, Deustuko Unibertsitatea. Donostian, urtarrilaren 31n.

“Aprendizaje Basado en Retos: cómo trabajar la sostenibilidad a través de competencias transversales”. UIPRE ikastaroa, UPV/EHUren Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua (SAE-HELAZ). Urtarrilean eta ekainean.

“Miradas críticas a la cooperación feminista”. *Política Exterior y de Cooperación Feminista a debate* jardunaldiak, CooperAcció. Online, otsailaren 18an.

“La Educación para el Desarrollo como apuesta por la transformación social”. *Educación para el Desarrollo y la Transformación Social: Los ODS en el aula* ikastaroa, CEP Santander. Santanderren, martxoaren 1ean.

“¿Cooperación para el desarrollo o para la convivencia global? Un cambio de enfoque para el futuro”. *Nuevos retos de la cooperación sanitaria valenciana: afianzando las redes sanitarias solidarias comprometidas con la Agenda 2030 en la Comunitat Valenciana* proiektuaren esparruan egindako mintegia. Martxoaren 2an.

“África en la economía mundial actual”. *Curso de Introducción a la Realidad Africana*, Grupo de Estudios Africanos eta Casa Encendida. Madrilen, martxoaren 9an.

“Inguruarekiko bestelako hurbilpenak: ekoizpen kulturala, hirigintza eta agroekologia feministatik solasaldia”. XXIV. Ankulegi Antropologia Jardunaldia. Donostian, martxoaren 11an.

“Valoración económica de los servicios de los ecosistemas”. Universidad de La Laguna unibertsitatean egindako mintegia. Martxoaren 11n.

“Educar sobre alimentación”. *La dimensión educativa en la alimentación saludable, sostenible y justa* ikastaroa, Universidad Complutense de Madrid eta Justicia Alimentaria. Madrilen, martxoaren 17an.

Analista en Conflictos y Construcción de Paz ikastaroa. Escuela de Gobierno, Universidad Complutense de Madrid (UCM). Madrilen, otsailaren 4tik apirilaren 29ra.

“Agroecología feminista en el proceso de transformación ecosocial”. *Krisi ekosozialari aurre egiteko alternatibak* online ikastaroa, honako hauek antolatuta: UPV/EHU, Parte Hartuz, Ekopol, VientoSur eta Betiko. Apirilaren 26tik maiatzaren 26ra.

“Mujeres en situación de conflicto: reflexiones en clave feminista”. *Las heridas abiertas de El Salvador* Nazioarteko Jardunaldietan egindako hitzaldia, Huacal-ONG de solidaridad con El Salvador eta Asociación Internacional Pro-Memoria Histórica, Reconciliación y Cultura de Paz en El Salvador. Bartzelonan, apirilaren 29an.

“Mujeres salvadoreñas en la agenda de la verdad, la justicia y la reparación”. *Las heridas abiertas de El Salvador* Nazioarteko Jardunaldietan egindako hitzaldia, Huacal-ONG de solidaridad con El Salvador eta la Asociación Internacional Pro

Memoria Histórica, Reconciliación y Cultura de Paz en El Salvador. Bartzelonan, apirilaren 29an.

Descubriendo África nazioarteko online ikastaroa. Asociación para las Naciones Unidas de la República Argentina (ANUAR), Universidad de Rosario. Argentinan, apiriletik uztailara.

“Introducción a la sostenibilidad en la docencia universitaria: Problemática socioambiental global y estrategias hacia la sostenibilidad”. Unibertsitate Irakasleak Prestatzeko Ikastaroa, Universidad de La Rioja. Maiatzaren 5ean.

Expansión de la Frontera Extractiva. Implicaciones para el Este de África online ikastaroa. Grupo de Estudios Africanos (GEA), Universidad Autónoma de Madrid (UAM). Madrilgo La Casa Encendida gunean, maiatzaren 30etik ekainaren 3ra.

“Caminar en la fraternidad hacia la inclusión social”. Cáritas Sestaoren 30. urteurrena ospatzeko ekitaldian egindako hitzaldia. Sestaon, ekainaren 3an.

“¿Tiene edad la política? La participación política de las personas mayores”. *I Jornadas Mayores en sociedad* jardunaldietan egindako hitzaldia, Fundación Patronato Europeo de Mayores (PEM) eta Unate (Universidad Permanente de Cantabria). Torrelavegan, ekainaren 10ean.

“Experiencia de Hegoa en educación emancipadora”. *La educación: base de un futuro más sostenible* udako ikastaroa, Universidad de La Rioja. San Millán de la Cogolla herrian, uztailaren 8an.

“Participación con lecturas de Eduardo Galeano”, *Leituras en Diversidade*. Coimbran, uztailaren 27an.

“Investigaciones colaborativas, militantes o a contracorriente: Experiencias y desafíos para la enseñanza y la acción de in-

vestigación comprometida con la vida”. *Prácticas otras de conocimiento(s) para disputar la esperanza: Fracturas y resistencias para hacer investigación y educación emancipadora comprometida con el cuidado de la vida* topaketan egindako hitzaldia, Universidad Surcolombiana. Neivan, irailaren 5ean.

“Disputar la esperanza: Hacia una gran juntanza política/ontológica y epistémica para una Universidad comprometida con la vida en tiempos de crisis civilizatoria”. *Prácticas otras de conocimiento(s) para disputar la esperanza: Fracturas y resistencias para hacer investigación y educación emancipadora comprometida con el cuidado de la vida* topaketan egindako hitzaldia, Universidad Surcolombiana. Neivan, irailaren 5ean.

“Experiencias, avances y obstáculos para la educación y la investigación emancipadora”. *Imaginación, política y academia: retos para la investigación y educación emancipadora* topaketan egindako hitzaldia, Universidad del Cauca. Popayánen, irailaren 9an.

“International Conference on Gender-based Violence and Human Rights”, Bon't Worry eta Institut d'Estudis Internacionals. Bartzelonan, irailaren 16an.

“Hezkuntza Ekosoziala: dimentsio ekosoziala eremuan barneratzeko irizpideak”. Hamar prestakuntza saio, Eusko Jaurlaritzako Ingurugelarako Eskolako Agenda 2030 programa. Irailaren 20an.

“Las diferentes dimensiones de la Educación Transformadora”. *VI Jornadas de Educación Ambiental de la Comunitat Valenciana. Actuar desde la Esperanza*, Generalitat Valenciana, Centro de Educación Ambiental de la Comunitat Valenciana eta Universitat Jaume I. Castellón, irailaren 29an.

"Propuestas de Educación Emancipadora en la Universidad". *Introducción de la Educación para la Justicia Global como transversal en estudios curriculares de la UGR. Aportes desde la Educación para la Transformación Social* ikastaroa, CICODE, Universidad de Granada. Granadan, urriaren 9an.

"Bizitza bizigarriak ekofeminismotik". Ekotopaketak: Azken krisia, gure garaial jardunaldietan egindako mahai-ingurua. Portugaleten, irailaren 30etik urriaren 2ra.

"El concepto de desarrollo humano", *XXIII Seminario Desarrollo, cooperación y tecnología*, Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Bilbon, urriaren 14an.

"Análisis del Informe sobre el estado de la pobreza en Euskadi". *Jornada Evolución de la pobreza en Euskadi* jardunaldian egindako hitzaldia, EAPN Euskadi. Bilbon, urriaren 21ean.

"Investigación e innovación para guiar la transición alimentaria". Encuentros de la alimentación sostenible, Fundación Daniel y Nina Carasso. Madrilen, urriaren 27an.

"Retos desde la Economía Ecológica", Conferencia Formación, Iratzar Fundazioa. Urriaren 28an.

"Educar para la transformación social". *Encuentro de Agentes de Educación para el Desarrollo y la Transformación Social*, CEP Santander. Santanderren, azaroaren 8an.

"Asilo, refúgio e interculturalidade". *Ad honorem* mintegia *Migrações e Interculturalidade* ikasgaiari, Licenciatura en Serviço Social, Universidade de Trás-os-Montes e Alto Douro. Vila Realen (Portugal), arazoaren 10ean.

"Iraunkortasunerako hezkuntza, GIHa eta bere hedapena GrALetan". Mahai-in-

gurua, Iraunkortasuna eta Ekonomia Zirkularraren Kudeaketarako Unibertsitate-Enpresa Gela, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea. Donostian, azaroaren 11n.

"La atención a las mujeres gitanas víctimas de violencia de género en los servicios esenciales de la CAE", Emakunde eta AMUGE. Bilboko BBK Kuna Eraikinean, azaroaren 14an.

"Biodibertsitate landua eta agroekologia feminista". Cristina Enea fundazioak antolatutako hitzaldia. Donostian, azaroaren 16an.

"Introducción á sustentabilidade na docencia universitaria". Unibertsitate irakasleak prestatzeko ikastaroa, Universidade de Santiago de Compostela (arazoaren 24an) eta Universidade de Vigo (azaroaren 25ean).

"Gatazken memoria historikoa genero ikuspegitik". *Jauzi Handia. Aptitudes para la Convivencia* bake kulturaren trebatzeko programan egindako prestakuntza-saioa (UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia). Donostian, azaroaren 28an.

"Finantzaketarako sarbidea bermatzeko eta ustategien errentagarritasuna hobetzeko neurriak". *Gazteak, familia nekazaritzaren etorkizuna* jardunaldietan egindako mahai-ingurua, Munduko Landagunea. Bilbon, abenduaren 1ean.

Memoria histórica de las mujeres saharais prestakuntza ikastaroa. Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamentuetan (Aljeria), abenduaren 3tik 6ra.

2.6. Hegoako taldeak eta irakasle eta ikertzaileek beste ekitaldi batzuetan izandako parte-hartzea

Jornada sobre Coherencia de Políticas para el Desarrollo Sostenible mahai-ingurua, Cátedra de Cooperación para el Desarrollo, Universidad de Zaragoza eta Federación Aragonesa de Solidaridad. Zaragoza, ekainaren 10ean.

“Economía sostenible y recursos naturales” mahai-inguruaren aurkezpena eta moderazioa, *XXII Reunión de Economía Mundial: Pandemia y el futuro de la economía mundial*. Madrilen, ekainaren 16an eta 17an.

UPV/EHUren *El derecho a la verdad como herramienta para la construcción de paz. Diálogo internacional a partir de la experiencia de Colombia* udako ikastaroko Antolaketa Batzordean parte hartzea eta “Comisiones de la Verdad. Visión global” panela aurkeztea eta moderatzea. Donostian, irailaren 7tik 9ra.

Bilboko Hezkuntza Fakultateak bultzatutako *ODS Irratia* online irratikomunitarioarekin lan egitea UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Helburuetan aurrera egiteko. Irailean.

“El modelo que desplaza. Megaproyectos y poder corporativo desde un análisis crítico y feminista” mahai-ingurua aurkeztea eta moderatzea, *Congreso DESHABITADAS: Desplazamientos forzados, degradación ambiental y derechos humanos. Una lectura política para habitar sin desplazar*, Zehar-Errefuxiatuekin. Bilbon, urriaren 4 eta 5ean.

“Encuentro de los Centros Aipaz, 25 años trabajando juntos por sociedades justas, pacíficas e inclusivas” topaketa prestatzea eta moderatzea, *Jornadas Aipaz 2022, 25 años construyendo cultura de paz*:

Avances, retrocesos y retos. Zaragozan, azaroaren 10etik 12ra.

Peace Studies in the times of the Ukrainian War, en el marco de proyecto *Partnership People, Communities and Cities in Peacebuilding: An Inclusive and Intersectional Approach to Peace Studies (InPeace)* mintegia antolatzea, EBko Erasmus Plus Programaren baitan. Bilbon, abenduaren 1ean.

XXI Jornada de Formación y Encuentro Profesional. El trabajo social ante la nueva ley de libertades sexuales jardunaldiaren aurkezpena eta moderazioa, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea, UPV/EHU. Gasteizen, abenduaren 2an.

Curriculum jasangarri egiteko lantaldean parte hartzea, Sectorial de Sostenibilidad, Conferencia de Rectores/as de las Universidades Españolas (CRUE).

Prevención comunitaria del malestar psicosocial desde/en el ámbito universitario proiektua koordinatzea. *Campus Bizia Lab*, UPV/EHU.

Arabako Campuseko Azoka Agroekologikoa proiektuaren taldean parte hartzea. *Campus Bizia Lab*, UPV/EHU.



3. Ikerketa-jarduerak

2022an, asko izan dira Hegoako taldeek eta ikerketa-ildoek sustatutako ikerketa-jarduerak. Lan hori aurrera eramateko hainbat lagunek eraikuntza- eta partekatze-eremu kolektiboetan parte hartu dute, bai Hegoako kideek bai inguruko beste erakunde batzuetako eta beste herrialde batzuetako erakunde aliatuetako kideek ere.

Ikerketa taldeek hurrengo orrialdetan aipatuko ditugun proiektuak landu dituzte. Proiektu horien esparruan hainbat argitalpen ere egin eta zabaldu dira, garapeneren eta nazioarteko lankidetzaren inguruan pentsamendu kritikoa sortzeko helburuz.

3.1. Ikerketa-taldeak

Tokiko giza garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa

Talde honen jarduerak bi oinarri teoriko hauen barruan kokatzen dira: a) giza garapena erreferentzia normatibo gisa, gaitasunen ikuspegian oinarrituta. Hark, bada, pertsonen, erakundeen eta gizarteen aukerak eta indarrak garatzeko prozesua hartzen du elementu nagusizat, eta prozesu horrek ongizatearen dimentsio kolektiboak aztertzeko duen garrantzia azpimarratzen du; b) tokiko dimentsioa, lurraldea garapena aztertzeko erreferentzia gisa hartzen duena. Tokiko dimentsioa, beraz, aldaketa-prozesuak giza garapenerako edukiz aztertzeko eremu egokitzat hartu ohi da, baita haren zailtasunak eta finkatzeko aukerak azaltzen duten dinamikak aztertzeko ere.

2022an, ikerketa eta prestakuntza jarduerak, batez ere, ekonomia sozial eta solidarioarekin (EES) lotuta egon dira; alde batetik, Hegoak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) finantziarioarekin egiten dituen lankidetzak proiektuei lotuta -jarraian

azalduko direnak- edo foru aldundien emandako aholkularitzari lotuta, eta, bestetik, Hegoako kideek REAS Euskadiko taldeekin eta lan batzordeekin, eta Andeetako eskualdeko beste unibertsitate batzuekin egiten duten lanari dagokionez. Esparru horretan, taldeko kideek hainbat artikulua argitaratu dituzte eta hainbat ikastaro, hitzaldi eta biltzar akademikotan parte hartu dute.

Kideak: Jokin Alberdi, Asier Arcos, Edu Bidaurrezaga, María Luz de la Cal, Marian Díez, Maite Fernández-Villa, Xabier Gainza, Amaia García Azpuru, Luis Guridi, Elena Martínez Tola, Juan Carlos Pérez de Mendiguren, Carlos Puig, Unai Villalba.

Gizarte-eragileak indartzea, lurralde-bakea eta eredu ekonomiko alternatiboak eraikitzeko Cauca iparraldean, euskal esperientziarekin elkarrizketan (PRO-2019K2/0003)

Proiektu hau Hegoa eta Lanki Institutuaren (Mondragon Unibertsitatea) arteko partzuergo baten bitartez garatzen da. Horretan, Universidad Javeriana de Cali unibertsitateko Instituto de Estudios Interculturales (IEI) institutuak ere parte hartzen du, tokiko erakunde kide gisa, Corporación Ensayos erakundearekin aliantzan. 2022an, Cauca eta Euskadin egindako prestakuntza-jarduerak amaitzearekin batera, Cauca Iparraldeko erakundeei emandako aholkularitza tekniko eta Kolonbian eta Euskadin eragile akademikoekin egindako partekatze-jarduerak ere bukatu dira.

Prozesuaren emaitza gisa, Cauca erakunde komunitarioen Plataforma osatu zen, proiektuaren subjektu ziren erakundeek osatuta (erakunde indigenak, nekazariak, afrokolonbiarrak eta FARCeke borrokalari ohien kooperatibak). Plataformaren eraketak kulturarteko antolakuntzari eta eskualdeko bakeari laguntzen die.

Ekainean, Cauca erakunde komunitarioen Plataformako hamar lagunek ikastaro batean parte hartu zuten Euskadin. Horretan, ikasgelako saioez gain, euskal landa



sektoreko eta sektore kooperatiboko erakunde hauekin bildu ziren: LORRA (Lezama), GARAIA (Mungia), EHNE Bizkaia, REAS-Euskadi, Barrenetxe kooperatiba (Markina) eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Landa Garapenerako zenbait Elkarte.

Aldi horretan, Cauca egindako *La intercooperación y comercialización conjunta de las organizaciones de la Plataforma Comunitaria del Cauca. Aportaciones a la reincorporación territorial, la construcción de paz y el desarrollo rural* ikerketa bukatu zen. Horretan, IEIk Plataformako zenbait erakundek, Hegoak eta Lankik parte hartu zuten eta lanaren bertsio osoa eta laburpen bat argitaratu zuten.

Proiektuak GLEAren diru-laguntza izan du, 393.549,15 eurokoa.



Lurralde-mailako bakearen eraikuntza Kolonbiako Cauca Iparraldean estrategia sozioekonomiko solidarioen bitartez (PRO-2021K1/0097)

Cauca Iparraldeko lurraldean bakea eraikitzeke esparruan, proposamen honek landa garapen iraunkorraren alde egiten du, ekonomia sozial eta solidario (ESS), komunitario eta feministako ikuspegiekin. Horretarako, proiektuak FARCEko borrokalari ohien kooperatiben, erakunde indigenen, erakunde afrokolonbiarren eta emakume nekazarien erakundeen arteko kulturarteko antolakuntza sustatzen du Cauca Iparraldeko lau udalerritan.

Proiektuak, beraz, prestakuntza erabiltzen du honako alderdi hauek bultzatzeko: antolakuntza gaitasunak, genero berdintasuna, gerentzia ahalmenak, tokiko merkatuetan sartzeko aukerak, eta abar. Gainera, elikadura burujabetza lortzeko ildo produktiboak ezartzea bultzatzen du, COVID-19ak izan duen inpaktuaren ondorioz, (elikagai agroekologikoak ekoiztea, kafe bereziak ekoizteko prozesuetan hobekuntzak egitea), baita merkaturatzea eta ekimenen arteko lankidetzak ere.

Gainera, eragin politikoa ere sustatzen du, eskualdeko politika publikoan proposamenak kudeatzeko eta sartzeko estrategiak landuz.

Proiektuak GLEAren diru-laguntza izan du, 583.632,96 eurokoa.

Cauca Iparraldeko emakumeen erakundeen ahalduntze ekonomikoa (PRO-2021K2/0006)

Proiektu honen helburua Caucako hainbat herritako emakumeen erakundeen gaitasunak indartzea eta erakunde horiek bistaratzea da, horiek ekonomikoki ahalduntzeko eredu ekonomikoko alternatiboen bitartez, hala nola ekonomia feministaren, ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS) eta elikadura burujabetzaren bitartez.

Hala, proiektuak kulturarteko lankidetzaren estrategia bat proposatzen du gaitasunak garatzeko, eta laguntza teknikoa eskaintzen du Euskadin eta Cauca Iparraldean. Estrategia horren helburua, bada, ekimen ekonomikoko-produktiboen diagnostikoak egitea da, merkatu-ikerketa komunitarioa erabiliz, baita proposamen horiek formulatzea ere, tokiko eta eskualdeko erakundeen aurrean aurkezteko eta eragiteko. Hala, emakumeen taldeen ahalduntze ekonomikorako eta horiek lurraldeko bakegintzari egiten dioten ekarpena bistaratzeko oinarriak ezarri nahi ditu. Emakume liderrek eta giza eskubideen eta eskubide ekonomikoen defendatzaileek eskualdean duten arrisku egoeraren ikusita, prozesuan babes eta segurtasun mekanismoak ere txertatzen dira, zaintza erlazional feministako ikuspegi batetik.

Proiektu ekonomikoa eta produktiboen formulazioa eta gestioa ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia feministaren ikuspegitik diplomatua egin zen. Prestakuntza horri esker, beren lurraldeetan antzeko egoerak dituzten erakundeen arteko aliantzak sortu dira.



Urrian, hamar emakume lider Euskadira etorri ziren bi asteko prestakuntza baterako. Horretan emakume ekoizleen erakundeak eta beste euskal erakunde sozial batzuk bisitatu zituzten, hala nola Urkome Landa Garapenerako Elkartea, Erika Gunea, Azpeitiko Emakumeen Txokoa, Maskilu Kontserbak (Zeberio), Basoa Proiektua eta Artea Sarea (Arratia), Bizkaigane kooperatiba (Errigoiti), Sustraiak catering (Santutxu), Amillena kooperatiba (Arrazola), zenbait emakume baserritar, REAS-Euskadi, EHNE Bizkaia, Etxaldeko Emakumeak eta Errotik.

Proiektuak GLEAren diru-laguntza izan du, 288.617,41 eurokoa.

Ekonomia Sozial eta Solidarioko lankidetzaren proiektuak lantzeko moduari buruzko ikerketa.

Ikerketak Gipuzkoako eta Euskal Herriko garapenerako lankidetzaren eragileei tresna metodologikoak eskaintzeko helburua du, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS)

arloko lankidetzak proiektuak lantzeko baliogarriak izango direnak, batez ere proiektu horien kalitatea, iraunkortasuna eta eragina handitzeari dagokionez.

Horretarako, bada, lehenik, Gipuzkoako eta Euskal Herriko GGKEek EESko proiektuetan izandako esperientziak kritikoki aztertzea proposatzen da. Bigarrenik, ESSa Gipuzkoan bultzatzeko proposamen nagusiak aztertu nahi dira, lankidetzak proiektuetara estrapola daitezkeen elementu nagusiak ikertuz. Azkenik, proiektuak ESSaren ikuspegitik esku hartzeko gida bat lantzea aurreikusten du, proiektuen prozesuei, edukiei eta emaitzei buruzko hausnarketak eta tresnak modu antolatuan jasoko dituen.

Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza du, 25.000 eurokoa.

Gatazkak, bakea eta garapena

Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldea

Taldea 2010ean sortu zen eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Unibertsitate Sistemako A kategorian eman zion (kategoriarik handiena). 2022an, aintzatespen hura eta finantzamendua 2025 urtera arte luzatzea lortu zuen taldeak.

Honako hauek dira taldearen ikerketa ildoak: 1) Tokiko giza garapena, lurraldea eta instituzionaltasuna; 2) Tokiko trantsizio ekosozialak eta ekonomia sozial eta solidarioa; 3) Bakearen eraikuntza; 4) Feminismoak, gatazka armatuak eta bakearen eraikuntza.

Taldearen esparruan, irailean *EBren bakegintza-politikak Kolonbian. Gizarte zibila eta giza eskubideak indartuko dituen eredu baterako bidean?* (UECOLPEACE) proiektua bukatu zen. Proiektua 2019an onartu zuen Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak eta taldeko kide hauek parte hartu dute horretan: Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Eduardo Bidaurratzaga, Irantzu Mendia Azkue eta Juan Telleria.

Urte amaieran, Europar Batasuneko Erasmus+ Programako *People, Communities and Cities in Peacebuilding: An Inclusive and Intersectional Approach to Peace Studies (InPeace)* proiektua amaitu zen. Hura Islandiako Unibertsitateko Höfði Reykjavík Peace Centre zentroa buru zuen partzuergo baten bitartez inplementatu zen. Partzuergo hori, Norvegiako, Finlandiako eta Bosnia-Herzegovinako zenbait unibertsitate- eta ikerketa-zentrok eta Hegoak (UPV/EHU) ere osatzen zuten. Halaber, ikerketa taldeko kide hauek parte hartu zuten proiektuan: Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Irantzu Mendia Azkue, Itziar Mujika eta Iker Zirion. Proiektuaren esparruan, Trömson (Norvegia) eta Reykjaviken (Islandia) antolatutako ikastaro bietan eskolak eman genituen. Abenduan mintegi publikoa antolatu genuen Bilbon.

Kideak: Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Jokin Alberdi Bidaguren, Asier Arcos Alonso, Eflen Areskurrinaga Mirandona, Eduardo Bidaurratzaga Aurre, Xabier Gainza Barrenkua, Alba Linares Quero (ikertzaile kontratatua), Elena Martínez Tola, Irantzu

Mendia Azkue, Itziar Mujika Chao, Rakel Oion Encina, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Unai Villalba Egiluz, Francisco Zabalo Arena eta iker zirion landaluze.

